

# Hiriberri Arakilgo predikuak I. Transkripzioa eta azterketa

PATXI SALABERRI ZARATIEGI\*  
RICARDO URRIZOLA HUALDE\*\*

## 0. SARRERA

Hemen aurkezten ditugun testuak sorta handiago baten parte dira. Denak batean artikulutzat argitaratzea ezinezko iruditu zaigu, lanak izanen lukeen luzerarengatik, eta, horregatik, zatika kaleratzea erabaki dugu, hola egiteak hizkuntzaren aldetik zenbait arrisku dituela argi dakusagun arren. Izan ere, artikuluko bakoitzaren bukaeran azalduko diren ondorio edo ondorio tankerakoak behin-behinekotzat eman beharko ditugu izkribu guztien azterketa zehatza egin arte, eta badaiteke oraingoan dioguna hurrengoan zuzendu edo osatu behar izatea, datu gehiago erdietsi eta aztertzearekin.

Testuak gure ikasle ohi batek Lizarrako antikuari bati erosi eta guri helarazitakoak dira. Delako antikuari horrek Hiriberri Arakilgo gizon bati erosi omen zizkion, familiaren gainerako liburuekin batean. Beraz, garbi samar dago izkribuen etorkia Sakanako herri horretan dagoela, baina ez zegoen hain garbi egilea nor zen, idazkietan izenik ageri ez delako. Testuak harturik artxibora jo genuen eta, azkenean, bertan denbora franko igaro eta saio anitz egin ondoan, ikusi genuen gure izkribuetako izkirionea eta 1850. urteko erdarazko agiri batean azaltzen dena bat bera dela edo bat bera datekeela. Agiri honen egilea Romualdo Matxinandiarena zitzaion apeza zen, baina ezin izan dugu jakin ez nongoa zen ez eta haren biziaren inguruko goiti-beheitiak zein ziren ere. Telefono liburua harturik ikusi genuen Matxinandiarena deitura Errazkinen eta Atarrabian heldu zela, eta, dei batzuen ondotik, ikasi genuen Errazkingoak Areson zuela iturri eta Atarrabiakoak Arriben, baina inork ez zuen gure Romualdo zorionekoaren berri. Hortaz, eta segurua ez bada ere,

\* Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

\*\* Ikertzailea.

irudi du Matxinandiarenaren jatorria Araitzen edo Areson dagoela eta jaun hau XIX. mendearen erdialdean Hiriberri Arakilen apez egon zela.

Hau guztia garrantzitsua da idazkien euskararen nolakoa eta nondikakoa zehaztu eta argitzeko tenorean, nahiz hil ala biziko kontua ere ez den, zeren, azken batean, gure eginkizuna izkribuetako hizkera nolakoa eta, ahalaz, nongoa den azaltzea baita, ez nahitaez egilearen jatorria zein den erratea. Guztia-ekin ere, bistan da bi gauzak loturik daudela eta bigarrenaren inguruko argitasunak lortzeak lehena hobeki ulertzen lagunduko ligukeela.

Garbi dago idazkiok erdarazko beste testu batzuen itzulpena direla, aurkitzen ditugun eleatarik anitz euskaraz usu ibiltzen direnetakoak ez direlako, eta, era berean, franko gaztelaniaz ere maila jasokoak direlako, kulturarik ez duen batek nekez ibiliko lituzkeenak: *Acomodatu, acuditu, admiretu, agilidade, ajustetu, concilio, confirmetu, desdichatu, despeditu* ‘despedir’, ‘difundir’, ‘esparcir’, *destiñetu* ‘destinar’, *dificultade, dirigitu, egi cierto ta claroat* (*una verdad cierta y clara*), *ejercitu* ‘ejercer’, *emienda, empeño, esento* ‘exento’, *esortatu* ‘exhortar’, *espacio, eterno, fatiga* (edo *fatigue*), *flaqueza, fortaleza, franquiatu, frecuente, glorioso, impasibilidad, impasible, impeditu, imploratu, infunditu, inspiretu, lanzatu, lastimagarri* (*lastimoso* segur aski), *participetu, piadoso, plantaceco ta cultivececo, plazo, poseitu, presumitu, privetu* ‘privar’, *prodigio, reconcilietu, redem(p)tore, sabio, semejanza, sensualidade, signifiquetu, siniestro, sostenitu, sugestio, tasatu, templo, titulo, tratatu zuen erremedieciatz* (‘trató de remediar’), *turbe* (*turba* erdaraz), *vanidade...* Bertan azaltzen diren latineko esaldiak eta pasarteak ere zentzu berean mintzo zaizkigu.

## 1. TESTUAK

*Erat Jesus efficiens demonium, et illud erat muttum et cum efeciset demonium locutus est mutus. Luc. Cap. 11*

Prediquetu ondorian J.C. gure Jaune ta eracusi ondorian bere discipuluei, eta tropelca<sup>1</sup> segaicentien turbe edo Gende guciei, ceñ (sic) aurrian eguin cituen milagroa edo beste, confirmececo bere doctrine, Sanduen ta milagroan vistera siñestatu cezaten bera (sic) erasten (sic) cioten fedia ta milagro aue-tati bat gaurco Euangelioa refericen digune presentatuzioten bere Magestadiaren aurrian Demonioic poseituric cegon mutuet, ta segun S<sup>n</sup>. Luquesec ez solamente mututuric, baiciquen sorturic, eta ychuturic S<sup>n</sup>. Matheoc ase-gurecen digun becela *a Tertuliano*, ta S<sup>n</sup> Juan Chrisotomo (sic) confirmecen diguten conforme Ycuszazte orai cer estadu miserabilia ta lastimagarrie etecen Guizon arrena.

Socorro gucien atariec erchi cition Democioac, impediceco bere erremedioa. Bienque Demonioac ichucendu, sorcentu, ta mutucentu ongui beguirecenbada becatu mortalán medios poseicentuen animec.

Lastimeturic bada JC Magestadiac Guizon desdichatue Arren estadues, tratatu zuen erremedieciatz, Ah! Eta ceñ cierto den ere bere misericordien empeñoric obrena —<sup>2</sup> gure miseriec edo Animen gaicec eguitendioten lastime escacenbadiogu erremediecen eguiesco deseyoaqui.

<sup>1</sup> Goratua dago.

<sup>2</sup> Ez da ulertzen.

Aiñ pronto nola lanzatuzuen demonioa guizon desdichetue arren corpu-ceti etorrizaquion ice, ta mincetucen aicenzuen, ta i—cen zuen, milagro ta prodigio aiñ au[n]dien vistera admiretu cren seguicencioten guciec *admirati sunt tenbe* (??). Beño escribac et (sic) Fariseoac, ermean ciren faltatu essenzu-tenak (?). Onec botacentu Demonioa Belcebu, demonioaren podorios ta vir-tutes *in (?) Belcebul Principe demoniorum licit demonia*. Beño JC. gure Jaunec ezabaturic ayen malicie ta siniestro macurre, essan zioten Bandotan berresi-ric Negar (?).

*Steta enim ci steta difert in claritate sic et resurrectio mortuorum.*

Adiazteco guri S<sup>n</sup>. Pablo Apostoluac Corpuz difuntuen resurrecioa elca-rrengandi izenen duen diferencie essatendigu ecce cela nola Yzerbat distin-guizenden beste izer bateti bere arguitasunian, ála corpuz gloriosuac distin-guituco drela elcarrengandi berrengandi despedituco tuten arguitasun gloriosuaren medios. Oh! Anime christauec, pensa ta veguire ongui cemba-teco honra ta glorie infundituco dioten Jangoicoac zuen corpuzeoi<sup>3</sup>, baldin vici llaburre onetan guardacen batuzte oso ta garbi bere legueco Mandamen-tu Sanduec Corpuz ozbera (?) ori, oraiñ eztena besteric baiciquen gaize, ta enfermedadiaren deposituet, ceñetan arquizendren junteturic miserie ta fla-queza guciec, ceñen sustancie ezten besteriquen baiciquen materie corrom-pitu, nazcagarribet; Ycusico da erresucitetu ondorian ederturic, S<sup>n</sup>. Pablo Apostoluac essaten tigon lau doye gloriosua ederraayequi, nola dren ~~lenic izenenda sepulteturic lurrian~~ Claridadia, ~~agileza~~, Sutileza, agilidadia ta impasi-bilidadia.

Lenic izenenda lurrian sepulteturic, uspel<sup>4</sup> ta corrompicioss beteriquen, beño resucitte[tu]co (sic) da impasible ta inmortal, seculu yagoco erioceric, gaiceric, eta penaric izambiar eztuena. = *Seminatur in corruptione?* Surget in incor[r]uptione. Ympasibilidadiaren doye onen medios, izenen da corpuce li-bre, ta esento ez solamente eriozas ta enfermedadias, baiciquen ere pena ta molestie gucietas, ez goseric, ez egarriric, ez ozic, ez beroric, ez bildurre ta tristezaric, cergattiquen izenenda impasible ta inmortal (sic), Sn. Juan Evan-gelistic essatendigun becela. *Mors ultra non erit neque luctus, neque clamor, neque dolor erit ultra*. Norc bada eztu deseyetuco, deseyo ta aleguiñ guciequi alaco diche, ta ongui izete beticuac?

Eguie da izenendela lurrian orziric, ichusturic, ta bere edertasune gucie galduric, beño resucitetuco da imagnetu eztaitequen edertasunequi. Eguie da izenen dela lurrian orciric gendiac iqueren tuen figure tristiaqui, beño re-sucitetuco da arguitasun<sup>5</sup> gloriosuatetequi<sup>6</sup>. *Seminatur in ignobilitate, surget in gloria*.

Yzenen da bai lurrian orciric bere inder ta muguimentu guciec galduric, comparacios truncu pisuet eguiñic, beño resucitetuco da fortaleza ta agilida-diaren doye gloriosuas adornaturic. *Seminatur in infirmitate, surget in virtu-te*.

Bere anime separaturic izenen da corpuce lurrian animele baten seme-janzan, beño resucitetucoda entero purifiqueturic, espiritu gloriosuat becela,

<sup>3</sup> Azken bi letrak (*oi*) aitzinekoetarik bereizirik daude.

<sup>4</sup> Hondarreko letra zein den ez dago garbi.

<sup>5</sup> Hemen *arguitesun* irakurri behar dea?

<sup>6</sup> Bigarren *te* hori ez da argi-argia.

sutilezaco doye gloriosuas ador[n]aturic. *Seminatur corpus animale, surget corpus spirituale.*

Bienaventuen (sic) corpuz<sup>cc</sup> gloriosua izenentuten lau doye gloriosua auec, signifiquetu zitugun<sup>7</sup> J.C. gure Jaunec essan [...]

*Et ne nos inducas in tentationem. & sexta pet. Dominicalis*

Ezta asqui Jangoicoaren piedadiac eta misericordiec barcatu dechan gure becatuec viciceco seguro gure salvacioco vidian. Baguiñauque Jangoicoarengandi seguridade edo ize publicuat gueren graciasco estaduez, ála ere eztaique iñor ere vici seguro presumituric beren salvacioco seguridadiaz, da necesario artas landara Jangoicoren (sic) escu poderosuac sostenitu gachan uzi gabe izulcera berris becatuec, ta au erecustingu Dotrine Sanduec, Paternosterran seigarren peticioan, essatendugunian ezgachala uzi tentacioan egoztera (sic). Ah!, eta cer gauce izen daiteque au beño necesario ta precisuago?

Guizonan vici lurrian da tentacio edo guerra continuat essaten digu Job Patriarca Sanduec.

\*\*\*

Para 1<sup>o</sup> domingo cuar[esma]

*Ridete itaque fratres quomodo*

*Caute ambuletis non quasi insipientes sed ut sapientes redimentes tempus.*

*Paulus ad Ephes. 5, 15*

Ya gaude dembora sandue artan ceñetan eguiesco cristauac eguiñentuten bere[n] aleguiñec, precisuac eta necesarioac conseguiceco beren becatuen barcaciao, ta bere animen salvacioa. Ya gaude dembora sandu artan ceñetas San Pablo Apostoluac essatencioten Corinthioco cristauaei iz auec: *Ecce nunc tempus acceptabile, ecce nunc dies salutis*; oraiñ dauquezte dembora sanduet, dembora ta ocasio —<sup>8</sup> conseguiceco Jangoicoarengandi zuen becatuen barcaciao, ta zuen animen justifiquecioa. Au essatencioten Sn. Paulo Apostoluac Corinthioco cristauaei. Eta ize bera auec arcentut nic adizale christauac, esortaceco zuen viozac eguiesco penitenciera, ta becatuen aborrecimienture, dembora sandu ontan, gracias eta bendicios beteriqueco egun avetan<sup>9</sup>. *Ecce nunc tempus acceptabile, ecce nunc dies salutis*. Eguie da eztela dembora ta egunic ceñetan Jangoicoaren Misericordiec justuan oraicioac (sic) eta erreguec aizen eztuenic. Eguie da eztela orduric ceñetan pecatariec ezñuen topatuco zabaldueric misericordiesco tribunaleco atariec, izulcen bada Jangoicoarengana, bere becatuen dolore ta arrepeni[mentu] eguiescuaqui. Berac bere profeta Ezequieleren medioz essaten digun becela. *Si autem impius egeni penitentiam ab omnibus peccatis suis, omnium iniquitatum eius quaz (sic) opertus est, non recordabor*. Ezequiel, 18.

Becatariec (essatendigu Jangoicoa [sic] bere Profetan medioz) becatu eguiñez eguiesco dolore ta sentimentus damuturic neregana izulcenden instete (sic) bereti, bereala azenduconaz eguinziñuen ofensa ta becatu gucietas, au de, arquiñucoñu barcatuic bere becatu guciec ta erreñuñucot nere gra-

<sup>7</sup> Beste irakurketa bat *signifiqueturi[c]tugun* dateke, baina egiantzekoena goikoa iruditzen zaigu.

<sup>8</sup> Hemengo hitza ez da irakurtzen ahal; aitzinekoa ere, *ocasio* delako hori, ez da guztiz argia.

<sup>9</sup> Ez dago garbi hitz honetako bigarren letra <v> ala <u> den; orain artekoan <u> garbia aurkitu dugu.

cien, ta guelditucoda seculē ofenditu ezbanien duen (sic) becela. Ez, ezta seculē desgayeric becatari arrepenituendaco. Beño au ala izanequin (sic) ere, ezaque dudetu iñorc Garizme (sic) Sanduco dembora dela apropositorena ezabuceco becatariēc bere estadu tristiaren ezabumentuen, ezabuceco obequi becatuen engañue ta bajeza, ta beguirececo obequi bere animen salvacioas, ta implorazeco auxilio yagorequi Jangoicoaren Misericordie ya sea cergatic Garizmen dre frecuentiāgo christauen oraicioac eta penitenciec, ya sea cergatic Garizmen franquiazendren yago, essateco moduen, Eliceco Yndulgenciec eta bere ondasun espiritalac, ya sea enfin cergatic Garizmeco dembora (sic) dena inspirecenduen ta infundicenduen devocioa, religioa (?) ta Santidadia, temploac, aldariac, baruec, limosnac, sermonac eta christauec asistencie frecuentia. Arrazue onengati Sanduec eta Eliceco Doctoriac deicen dute Garizme titulo ta izen sanduenaqui, deicendutela bazuec *tempus militie christiane*, vicio ta Esayen sugestioan contra peleyececō dembora S<sup>n</sup>. Bernardoc becela. Beste bazuec animen erremedioco, *remedium animarum*. S<sup>n</sup>. Chrisostomoc deicenduen becela, bada yaqueta dren aiñ frecuentia[c] anime tristiaren gai- cec eta peligroac, nola dren becatuec justo, ta arrazue da izenzaten erremedioac arceco dembora ta espaciorembat. Bazuec deicendute dembora preciosa, *tempus pretiosum*, S<sup>n</sup>. Basilioc becela, cergatic Garizmeco egun bacoachac balioduen guizonac imaginetu ezaqueten precioa. Ta acenic Tertuliano (sic) deicendu jangoicorequi (sic) becatari tristia reconciliececō dembora, *tempus reconciliationis*. Titulo ta izen sollo<sup>10</sup> onec deitu biarluque becatari tristia aren (sic) atencioa, ¿Cergatic cer gauec tristiagocoric izendaifeque, nola egotia christauec priveturic bere Jangoicoaren gracie ta estimecioti, priveturic ceruco drecho ta herencie glorioso artati, priveturic beste christauec graciesco estaden daudenac, particependuten sufragio gucietati?

\*\*\*

Bada, guizon becatarie, sartudayen bere baiten eta ezabucezan bere estadu tristia, ceñetan arquicenden becatu mortaleco estaden dagon vitertian, dirigicenda principalqui Garizmeco dembora Sandue au (sic). Bai, preciso ta necesario da pecatariēc sartudayen bere baiñen eta culpezala bere burue, bere faltas ta bere volundates arquicenden estadu triste ta desdichetue ortas, cergatic becatu mortalian consenticen duen aldioro, consenticendu bere culpes ta vere volundates. Ya au izenda goiz ontan zuen vistera paratucoten eguibet, egui cierto ta claroat, iñorc ere uquetu ezaquena. Esperacendutela Jangoicoaren gracies landara zuen atencio piadosua.

\*\*\*

Trentoco concilio sanduec eracustendigunian cein aundie ta indispensabilia den Penitencieco sacramentue consiguiceco (sic) Guizonac beren salvacio eternuas essaten tigu ize auec. Yrid. Ses. 6 et 14. Baldin christauec perseveracen baluquete Bautismo Sanduen errecivituzuten gracie garbi ta Sandu artan, orduen, caso ontan eliceque izenen necesario Penitencieco sacramen-

<sup>10</sup> Hondarreko letra aski berezia da; uste dugu ondoren datorren *onec*-en lehen bokal errepikatua besterik ez dela, izkiriartzean izandako zalantzen ondorena, alegia.

tue au, Beño gure Redemptore ta Salvatore misericordiosuac<sup>11</sup> naturaleza humanan flaqueza, dificultadia senticendena sosteniceco graciearen (?) estadu berian gaizeraco, guciec senticendugu propensio ta inclinacio molesto au, gure entendimentuen illuntasune, voluntadiaren gogortasune, pasio gaistuaren desordena, Demonioaren guerra portictue<sup>12</sup>, Munduco vanidadia, araguiaren sensualidadia, eta best-

Omnia tempus habent, et suis spatiis transeunt — sub sole. Ecel. 3, 1

Jangoicoaren Providencie Sanduec ordenatucituen gauce guciec bere ordenian. Eguincituen Egunec eta gauce Guizonan servizureco, Egunec empleaceco bere lan edo trabajuen eta Gauce descansaceco eguneco fatiguetati. Ordenatucituen dembora acomodatuac eraiteco eta dembora bilceco eraquituen frutuec, dembora plantaceco ta cultivececo ta dembora bilceco bere nequiaren frutue. Ta (?) ario ontara gauceguaciendaco, arquicenda plazo ta dembora acomodatuac. Providencie ta ordena sabio onen vistera (essaten digu S<sup>n</sup>. Gregorioc) cergatic ezta destiñetubiar demborarenbat gauce guciec beño yago importacenduen batendaco, nola den animen salvacioreco? Gauce guciendaco dauque Guizonac dembora acomodatuac ta ezta izembiar demborarenbat empleaceco seriamente bere obra onetan, empleaceco eguiesco penitencien, bere vicieren emiendan, ta bere animen salvacioan?

Cer, gauce guciendaco sobracenda dembora, ta faltatubiarda Jangoicoren servicececo? Ez, essatendigu Sandu Glorioso bera onec. *At vero salutis tue negotium semper age*. Gure vici temporalac biarñuen gauce guciendaco, tasatucituen Creadoriaren sabidurie supremuac dembora saquiñe. Beño trataceco salvacioreco negocioas, trataceco bere jaune ta Jangoicorequi ezion guizonari paratu termio edo dembora saquiñic<sup>13</sup>, cergatic dembora gucietan dauque christauec dembora ta escaye acudiceco Jangoicoarengana ta dembora gucietan comicen dio obliguecio rigorosua servicececo bere Jaune ta Jangoicoa. Bai christaue, dembora gucietan comicen dizu obliguecioac vicias ajusteturic Jangoicoaren Legueco Mandamentu Sanduetara. Beti comicen dizu obligacioa ejercicera obra onetan ta vicicera apartaturic jangoicoa ofendice — ta oca-siotati.

\*\*\*

*Latrare potest, mordere non potest nisi volentem*

Oh, Jaune David essaten zuen (?) da (?) poderosoa eta ceñ poderosua, ece ezta lurrian bere podoriaqui dasquenic<sup>14</sup>, bueno beño noiz izaniquen (?) aimbesteco podoria ori, au cen JC. gure Redemptoria mundure etorricen beño lenago.

Lenago – cein cen dragon fuertia devoratuzituena — Davidbet, Sanson ta Salomon bat lagunequi (?) Eva gurequi (?)

\*\*\*

<sup>11</sup> Bukaerako –c hori ez da argi ageri.

<sup>12</sup> Ez da segurua. *Portiztue* ere izan genezake, baina ez dakigu hola den ala ez.

<sup>13</sup> Hitz honen –ic bukaera hori ez da guztiz argia.

<sup>14</sup> Das-?

*Hec est enim vesta sapientia et intellectus coram populis. Deut. Cap. 4ren 6*

Elize ama santac senticenduen pena aundienetati bat da icustia bere seme christauec dauqueten descuicuidua (sic) eta ignorancie, fede christauen gau-cetan. Izeniquen ala ere, apenas topacenda Judio, Hereje ta Maometano eta Protestanten ertian bere fede falsoaren articulo ta parte principalenetan ins-trui[tu]ric eztagonic. Beño christauecan, ceñec arrazuyagorequi egonbiarlu-quete instruituric cerutic errecibitu ize duten doctriñe sanduen icustenda aumbesteco descuidua eta Ygnorancie ece ez solamente aurrec baiciquen adinsuec arquicendre bere salvacioraco gauec precisuac eztaquitenac. Eta adagioac edo refranac essatenduen becela essatetic eguitera baimbadaye dife-rencie aundie, Nola eguiñ edo cumplituzaquete Jangoicoac aguincenduena, eztaquitenac doctriñe sanduen medios Jangoicoac berac eracusten duena? Cer esperazaquete alacuac baiziquen Jangoi Profeta Ysaiasec declaratzuzen sentencie vilduriqu<sup>15</sup> ric (sic) ore, ceñei asegurecen (zuloa) [per]fecto baten on-dorian, arquicenduba aurraten ignorancien, Jangoicoaren aguincenduen gau-cetan, izenen dela malditua Jangoicoaren aurrian.

Gauec conicenduena da ongui pensaturic nola cabitu daiquen guizon christauen ertian aumbesteco descuido ta ignorancie, Jangoicoac ain estu ma-nacenduen gau-cetan, eta guizonan salvacioraco aiñ preciso drenetan.

Seincen bañugu Escriture Sagraduan pasagiac, icusten dugu Jangoicoac aguinduciola Moyses fabriquezala tabernaculavat depositececo legue bera au, ceñen observancie escacen digun aldaitequen pena gogorraren azpien.

## 2. TESTUEN HIZKUNTZA AZTERKETA

### 2.1. Fonologia

#### 2.1.1. Bokalak

##### 2.1.1.1. Goiko bokalek eragindako hersketa

Indartsua da biziki prediku hauetan, aurreranzkoa eta atzeranzkoa, hain-beste non maileguetan eta tartean morfema muga dagoenean ere burutzen baita, eta, halaber, tartean bi kontsonante daudenean (*inder*) eta bokal osoa gabe bokal edo kontsonanterdia dugunean. Nolanahi ere, goiko bokala biga-rrenkaria denean ez da gertatzen, adibidez Utergako katiximan (Ondarra, 1980) agitzen denaren kontra: *Admiretu*, *ajustetu*, *animek*, *animele*, *aragieren*, *aseguretzen*, *atariek*, *au de* ‘hau da’, *baiziken*, *begire* ‘begira (ezazue)’, *bere bai-ten*, *beteriken*, *beterikeko* ‘beterikako’, *bildurre*, *bistera*, *bitertian*, *Davidbet* ‘David bat’, *desdixatue* eta *desdixetue*, *deseietu* ‘desiratu’, *diferentzie*, *digune*, *deposituet* ‘depositu bat’, *doktrine*, *dudetu*, *egibet* ‘egia bat’, *erekusten digu* (era-kusten digu ere bada), *erremedietziaz*, *erremedietzen*, *erresuzitetu* - *resuzitetu*, *estimezio*, *gaitzek* ‘gaitzak’, *garizme* ‘garizuma’, *herentzie*, *imajinetu*, *inder*, *ins-piretzen du*, *instete* ‘unetxoa’, *izen* ‘izan’, *izer* ‘izarra’, *jaune*, *junteturik*, *justifi-kezioa*, *konfirmetzeko*, *konfirmetzen*, *korputze*, *kristauek* ‘kristauak’, *lastimaga-rrie*, *lastime*, *lastimeturik*, *llaburre*, *makurre*, *malizie*, *materie* ‘zornea’, *miserie*, *molestie*, *mutuet* ‘mutu bat’, *nazkagarribet*, *nere baitten*, *obligezio*, *pisuet* ‘pisu

<sup>15</sup> Tarteko <r> hori ez da garbi ikusten, eta ez dakigu <rr> ez ote den irakurri behar. Testuingu-ruak ez du anitz laguntzen.

bat', *prediketu, pribetu, San Lukesek, sekule, sepultetu, turbe, uketu* 'ukatu', *zergatiken...* Baina *apartaturik, tasatu...*

Sabaiko sudurkariak —edo, nahiago bada, sudurkaria sabaikaritu aitzi-neko bokal erdiak— ere ixten du *a*: *Beño* 'baina', 'baino' (cf. Bonaparteren materialetan ageri den Goñiko *leño* 'lainoa', argibidez).

2.1.1.2. Bokal irekiaren ondoko *e* eta *o* maiz ixten dira, disimilatzen, eta *i*, *u* bihurtzen. Hau *bat* zenbatzailearekin ere kausitzen dugu, hasierako konsonantea galdu duenean: *Agilidadia, argitasunian, aurrian, biar, bidian, bertertian, dugunian, egieskuaki* 'egiazkoarekin', *enfermedadiaren, erremedietziaz, erremedietzen, fedia, frekuentiako, gloriosuak, inpasibilidadia, klaridadia, koninuat* 'kontino bat', *lurrian, magestadiaren, miserabilia, ondorian, publikuat, tristiaren...* Baina, *jangoikoak, jangoikoarengandi, klaroat* (< *klaro bat*), *milagroat* (< *milagro bat*), *nezesariaoak* (*prezisuak eta nezesariaoak*)...

### 2.1.1.3. Asimilazio eta disimilazioa

a) *Animele* 'animalia', *ertean* 'artean', *ete* 'ote' (ez da argiro irakurtzen ahal), *podorios* 'poderioz, eraginez'.

b) *Instete*. Hau disimilazioa ez ezik erratu hutsa ere izan daiteke, izan ere *istentian, istenteko, ixtanpat* eta beste aditzen dira egun (Luzaiden azkena, ikus Kamino & Salaberri, 2007), hots, lehen sudurkaria galdu eta bigarrena atxikitzen duten aldaerak. Dena dela, Muzkiko Morentindarren testuetan *instante* dago.

### 2.1.1.4. Diptongo eta hiatoen bilakaera

Kasu batean *-au-* > *-a-* dugu (*arkitzen*) baina gainerakoetan *au* diptongoa ongi gordetzen da: *aundi, daude, gaude, gaurko, gauze...* Osagai palatala duen diptongoa dela eta, *eraki zituen* 'erein zituen' dago testuan, eta honen aldakan jatorrizko forman diptongoa zegoela adierazten duen *eraiteko* 'ereiteko'. Nola-nahiko gisan, oroitu beharra dago Oltzan *ereki* zegoela (Ondarra, 1982: 160).

Bestalde, *-u + -a > -ue* ohi da, eta goraxeago erran bezala *-o + -a > ua*. Ez dago, beraz, Sakana erdialdean gaur egun (Erdozia, 2001: 67) usaiakoak diren *eskuba, eskube, zeruba, zerube*-ren moldekorik. *Behar* izena *biar* idatzirik aurkitzen dugu, hersketarekin; ez dakigu, dena dela, hiatoa diptongo bilakatu den ala ez.

Kasu batean, *oraizio* 'otoitza' hitzean hain zuzen, diptongoa kausitzen dugu euskaraz, jatorrian, gaztelanian, holakorik ez bazen ere. Ez dakigu xuxen hau zeri zor zaion, baina Itzarbeibarko Utergan *baigi* 'begi' eta *aigi* 'egia' ditugu (Ondarra, 1980: 203, 206, 219) eta Iberoko katiximan *aurpeigi* 'aurpegia', *beigi* 'begia' (Arraitza, 1988: 147, 149); Caminok (1999: 13), bestalde, Gesalazko testuetako eta Etxarri-Ergoienetako egungo hizkerako *aungi* 'ongi' jasotzen du, eta Dorraoko *auntzi* 'ontzia' bizia. Lexema dela eta, Elizaldek *otoiz* du, Utergako XVIII. mendeko katiximan *oteiz* (*egin, in*) eta *orazio* ageri dira, eta Iberoko katiximan *otoiz*.

### 2.1.1.5. Bokal batzea, erortzea eta garatzea

a) Bat-egitea: *Eztaiteken* 'ez daitekeen', *lenago* 'lehenago', *lenik* 'lehenik'. Hau ardurakoa da Arakilez behehitiko testuetan, Utergako katiximan (*alkes* 'ahalkez', *lenago, lenbisko, lendabiskue*), Lizarragaren lanetan eta bestetan.



b) Aferesia. Hemen, normalki, silaba osoa ere galtzen da, bokala ez ezik: *Esaten tigu* (< *esaten ditigu* ‘esaten dizkigu’), *e(t)zake dudetu* (< *ez dezake dudatu*), *guardatzen batuzte* (< *guardatzen badituzute* ‘gordetzen badituzue’), *ia-go* (< *geiago*), *izen zaten* (< *izan dezaten* ‘izan dezaten’), *kulpe zala* ‘kulpa dezala’, ‘errua egotz diezaiola’, *mututzen tu* (< *mututzen ditu*), *poseitzen tu* (< *poseitzen ditu*), *sortzen tu* (< *sortzen ditu* ‘gortzen ditu’), *ortzirik, uketu e(t)zakena* ‘uka ez dezakeena’. Baina horiekin batean *esan, etorri, ezabutu, ikusi* ere ageri dira.

d) Sinkopa. Hemen ere batzuetan silaba osoa da erortzen dena: *Adiazteko* (< *adierazteko*) *daukezte* (< *daukezute* ‘daukazue’), *dre* (< *dire, dere*), *dretxo* (< *derecho* ‘eskubidea’<sup>16</sup>), *drela* (< *dirrela, derrela*), *dren* (< *diren, deren*), *erasten zioten* (< *erakusten zioten* ‘erakusten zien’), *garizme* (< *garizume* < *garizuma*), *ikus zazte* (< *Ikus zazute* ‘ikus ezazue’), *komitzen dio, komitzen dizu* (< *konbidatzen dio, konbidatzen dizu, ustez*), *obrena* (< *oberena*), *ontan* (eta *onetan*), *tuzte* (< *dituzute*), *zren* (< *ziren*)... Baina *bereala, ikusiko da*; cf. *ikusko du* Iruñerrian eta Garesen, *berla* Elkanon eta Garesen, *bela* Oltzan eta Goñin, *berealá* eta *berla* Lizarragaren lanetan, *berlaxe* Elizalderenean (baina *bereala* Muzkiko testuetan), *berla* Utergako katiximan. Apalauzak dioenez (2008), sinkopak eta aferesiak indar handiagoa dute Imozko eta Basaburu Nagusiko ekialdeko herrietan mendebaldekoetan baino. Sakana erdialdean *ikuskwét*-en modukoak daude (Erdozia, 2001: 66).

g) Protesia: *Erremedio, erresuzitetu, errezibittukot* ‘errezibituko dut’..., baina *redemptore, resurrezio, resuzitetu*, e.a.

h) Paragoea: *Boluntade, dolore, podore, redemptore, salbadore, seguridade, sensualidade*.

## 2.1.2. Kontsonanteak

### 2.1.2.1. /j/-ren bilakaera

Hitz hasieran [x] dagoela dirudi: *Jaun, jende, jangoiko, junteturik, justo* baina bitan x [š] dugu, *xakin* aditzean: *Dembora saquiñe, dembora saquiñik, hots, eta egungo grafian, denbora xakiñe* eta *denbora xakiñik*. Hitz barnean ere aurkitzen dugu [j], *peleietzeko* ‘borrokatzeko’ hitzean (cf. *deseio, deseietzeko*).

### 2.1.2.2. Asimilaziozko palatalizazioa

Hortz hobietako sudurkariarena: *Aiñ, alegiñ, alegiñek* ‘ahaleginak’, *bagiñauke* ‘bageueka’, *beño* ‘baina’ eta ‘baino’, *destiñetu* ‘(denbora) eskaini, eman’ (< *destinar*), *egiñez, egiñik, iñor, iñork, oraiñ, siñestatu, xakiñe, xakiñik, zeñ* (*zein, behin*), *zeñen, zeñetan, zeñetas*... Baina *doktrine*.

Alboko hobikariarena: *Illuntasune, llaburre*. Bigarren honetan palatalizazioa adierazkorra dela erranen genuke.

Horzkari ahoskabearena: *Arkittuko ttu, arrepenittuendako, bere baitten* (baina *nere baiten*), *biar ttu, egitten ttute, ezttu, ordenatu zittuen, tasatu zittuen*.

<sup>16</sup> Kontuan hartu behar da, nolana ere, Nafarroako gaztelanian *drecho* ezaguna dela, *ir al drecho* ‘zuzen joan’, ‘lasterbidetik joan’ sintagman segurik.

Txistukari bizkarkariarena: *Gaistuaren* (ez da seguru-segurua, [s̺] ere izan baitaiteke).

### 2.1.2.3. Txistukariak

a) Hitz barruan. Alde batetik *egiesko* ‘egiazkoa’ dugu, baina, bestetik, eta sandhian, *eztena* ‘ez dena’, *ezten* ‘ez den’ (ikus sandhiei eskainitako atalñoa).

b) Ozen ondoko neutralizazioaz kestione, aitortu behar dugu ez dakigula, arlo honetan erdal grafia-sistema euskararako egokia ez delako, neutralizaziorik bazenetz.

### 2.1.2.4. Dardarkariak

Irudi du *eskaie* hitzean dardarkari bakuna erori dela, jatorritzat *eskari* hartzen badugu, baina orduan arazoak izanen genituzke bukaerako *-e* hori azaltzeko, hemen ezinik ez badago ere, testuotan *doie* ‘dohaiia’ eta *desgaie* ‘desgaraia’ ere badirelako, biak mugagabeen. Kontuan har, zernahi ere den, Elkanokoak *eskaida* erabiltzen duela.

Bestela *-r-* ez da arruntean erortzen, deklinabidetik kanpo behinik behin (ikus morfologia atala): *Begiretzen, denbora, erakutsi, ere* (beti), *garizme, landara, orai, orain, podore...* Zenbait eletan bokala da erortzen dena, sinkopaz, ez dardarkaria (*dre, obrena...*), eta behin gutxienez dardarkaria ageri da ageri behar ez lukeen lekuan: *apropositorena* ‘egokiena’<sup>17</sup>. Sakana erdialdean, egun, [r] frankotan erortzen da, bai eta [δ], [ɣ] ere (Erdozia, 2001: 61).

Ez dago, bestalde, *-d-* > *-r-*, edo *-g-* > *-r-* ren lekukotasunik, Imotzen eta Basaburu Nagusian bezala hortaz (Ibarra, 1995: 190-192, Apalauza, 2008).

### 2.1.2.5. Sudurkariak

Kasu batean hobietako sudurkaria erori dela dakusagu, bokal arteko lekunean: *termio* < *termino*.

### 2.1.2.6. Herskari eta igurzkariak

#### 2.1.2.6.1. Ezpainkariak

Zenbatzailearen hasierako [β] galtzen dela dakusagu, izena bokalez bukatu eta igurzkaria bokal artean gelditzen denean: *Deposituet, klaroat, kontinuat, milagroa, pisuet, publikuat, sanduet*. Baina ez bokal palatalaren ondoran: *Egibet* ‘egia bat’, *nazkagarribet*. Sakana erdialdean erortzea ohikoa da (Erdozia, 2001: 59), baina ez dakigu xuxen bokal palatalaren ondoran murriketarik badenetz.

Hasierako lekunean ezpainbiko ahostuna dugu *bekadari, bekatu, barkatu, barkazio* hitzetan eta ahoskabea *pekatari-n* eta arrunt argia ez den *portiztuen* (‘bortiztua?’).

#### 2.1.2.6.2. Horzkariak

Zenbait aldiz, bokal artean [δ] lekutzen da: *Aitzen* ‘aditzen’, *sartu daien* (< *sartu dadien*; Lizarragak ere normalki *-d-* rik gabe ibiltzen du), eta sandhietan: *Errezibittukot* ‘errezibituko dut’, *paratukot* ‘paratuko dut, ezarriko dut’. Baina *adizale* ere bada testuetan.

<sup>17</sup> Gaztelaniako *a propósito*-ko preposizioak eraginik ote?

Horzkari ahoskabez amaitzen den laguntzaileak soinu hori atxikitzen du, gibelean menderagailua duenean ere: *Paratukoten* ‘paratuko dudan’. XVIII. mendeko Utergako katiximan *in duten* dago, baina XVII. mendeko Beriainen lanetan *egin dudan* zegoen, eta Iberoko XIX. mendeko katiximan *alibiatzen dizkiodelarik, duden guzia, padezitzen dudelarik, partizipetzen ditudelarik* ditugu.

Hasierako lekunean ahostuna opatzen dugu, espero izatekoa zen bezala, *denbora* hitzean, eta ahoskabea *paratu* ‘ipini’-n.

Ozen ondoan horzkari ahostuna aurkitzen dugu hitz eta morfema zaharretan, baina ez mailegu berrietan, eta, inoiz, atzizki bera bi eratara ageri da: *-endako, -gandi, bolundate* (eta *boluntade*), *jende, landara, ni(e)nduen, ondatsun* (baina *gogortasun, illuntasun*), *sandu* (baina *santidade*)... *l -mentu, difuntu, entero, esento, juntetu, plantatzeko, presentatu, sentitzen, seriamente, solamente, tentazio*... Forma bigarrenkariekin ere ez da ahostuntzerik, sandhietan: *mututzen tu* ‘mututzen ditu’, *sortzen tu* ‘gortzen ditu’, etab.

#### 2.1.2.6.3. Ezpain-horzkaria

Testuotan ongi gordetzen da [f], alegia, ez da inoiz [p] bihurtzen: *Faltatu, fedia, figure, konforme*...

#### 2.1.2.6.4. Belarrak

Hitz hasieran ahoskabea kausitzen dugu *korputz* eta *komitzen* ‘gonbidatzen’ (ustez) hitzetan. XVIII. mendeko Utergako katiximan eta Muzkiko testuetan ere *korputz* dago, eta, berebat, Ukargo XIX. mendeko dotrinan, baina *gorputz* ageri da Iberoko eta Makirriaingo XIX. mendeko katiximetan.

Bestalde, ez dugu *g*-rik opatu hitz hasieran, egia erran *oa*-dun formarik ere ez baita, *orai, oraiñ* hitzean adibidez dardarkaria erortzen ez delako. Sakana erdialdean egun *gwái* ‘orain’, *gwáixe* ‘oraintxe’, *gwáñiken* ‘oraindik’, *gwartu* ‘ohartu’, *gwátze* ‘ohatzea’ eta *gwé* ‘hoa’ daude (Erdozia, 2001: 65-66). Imotz eta Basaburu Nagusian «bizkorra» da bilakaera hau, ahulxeagoa Larraunen eta gutxitan agertzen da Araitzen (Apalauza, 2008: 77).

Kasu batean, hitz barnean, [ɣ] > [β] pausoa dago, segur aski ondoko [u]-k lagundurik: *Ezabumentu, ezabaturik, ezabutzeko*.

Hitz barnean [ɣ] ez da erortzen: *iago, frekuentiago, nazkagarribet, tristiagokorik*. Hau ez dator bat Sakana erdialdean eta Bakaikun egun dagoen egoerarekin (*ezjo* ‘hezeago’, *goixwó* ‘goxoago’, *merkjo* ‘merkeago’, *tentjo* ‘tenteago’, Erdozia, 2001: 59, 66, 2002: 289), baina bai Muskitzen, Ultzaman, Atetz eta Anuen kausitzen dugunarekin (Ibarra, 1995: 178, Apalauza, 2008: 81), hots, ekialderago eta erortze gutxiago daudela dirudi, Nafarroa erdialdeko eremu honetan bederik.

#### 2.1.2.7. Kontsonante multzoak

a) *-mb-* > *-m-*: *Komitzen* (< *konbidatzen*, ustez).

b) Sandhiak:

- *z + d-* > *-zt-*: *Ezta* ‘ez da’, *eztela* ‘ez dela’, *eztu* ‘ez du’, *eztuena* ‘ez duena’, *eztuenik, imajinetu eztaiteken edertasuneki* ...

- *z + g-* > *-zg-*: *Ezgatxala utzi tentazioan erortzera*.

- *z + l-* > *-l-*: *Elitzeke*.

- *z + n-* > *-zn-*: *Ezbanienduen* ‘ez baninduen’.

- *z + z-* > *-(t)z-*. Ez dakigu, grafia arazoengatik, zer gertatzen den el-karketa honetan: *Ezake* ‘ez dezake’, *ezakete* ‘ez dezakete’, *ezion* ‘ez zion’.

## 2.2. Morfologia

### 2.2.1. Izenaren morfologia

#### 2.2.1.1. Absolutiboa

- a) Artikulua, zenbait aldiz, egon behar ez den tokian azaltzen da: *Bizi llaburre onetan, lau doye gloriosua ederra ayequi* 'lau dohai loriagarri eder haiekin', *denbora sandue artan, denbora sandue au, itze au, itze bera hauek* 'hitz hauek berak', *podoria ori, sandu glorioso bera onek*.
- b) Pluralean *-ak* eta *-ek* aurkitzen ditugu, bigarrena goiko bokalen (lehenkarien) ondoan: *Atariiek, erreguek, fariseoak, gloriosuak, kristauak, oraizioak, sanduek*...
- c) Izenordain – izenondoak: *Au, auek, ori*.

#### 2.2.1.2. Partitiboa

Eskuarki *-rik* da bokal ondoan: *Berorik, egarririk, enpeñorik, goserik, itxuririk, mututurik, ordurik, penarik, sorturik*..., baina *-riken* ere bada: *Besteriken, beteriken* (cf. *baiziken, izaniken, zergatiken*...). Bigarren aldaera hau bat dator Sakana erdialdean egun kausitzen dugunarekin: *gwáñiken* 'oraindik'. Kontsonante ondoan *-erik* bitxia aurkitzen dugu bi hitzetan: *Eriotzerik*<sup>18</sup>, *gaitzerik*. Bestela, espero genuen *-ik* dago: *Egunik, otzik, xakiñik. Atzenik* 'azkenik', *lenik* 'lehenik' ere badira.

#### 2.2.1.3. Ergatiboa

Zenbait aldiz ergatiboa falta da: *San Lukesek [...], San Mateok [...]* ta *Sn Juan Krisostomo konfirmetzen diguten bezela [...]* | *esaten digu jangoikoa*.

- a) Singularra: *-ak* (*-ek* goiko bokalen ondoan)  
*Jangoikoak, miserikordiek* 'miserikordiak', *pekatariiek* 'bekatariak', *sanduek* 'santuak'.  
*Apostoluak* berezia da, *-o*-rekin bukatzen den hitza dela irudi baitu.
- b) Plurala: *-ak* (*-ek* goiko bokalen ondoan)  
*Elizeko doktoriak, gizonak, gure miseriek edo animen gaitzek, kristauak*.
- c) Mugagabea: *-k* (bokal ondoan), *-ek* (kontsonante ondoan)  
*Demoniok, San Basiliok, San Juan ebangelistek, San Krisostomok, San Lukesek, San Mateok*.
- d) Izenordain, izenondo eta beste: *Onek, batzuek, berak, iñork* ez.

#### 2.2.1.4. Datiboa

- a) Singularra: *-ari*  
*Gizonari*.
- b) Plurala: *-ei*  
*Diszipuluei, guziei, kristauei*.

#### 2.2.1.5. Inesiboa

##### 2.2.1.5.1. Bizigabeekikoa

- a) Singularra. Bokal ondoan *-n* dago *-a*-ren gibelean (goiko bokalen ondoan *a > e* aldakuntza gauzatu da), *-en* *-u*-ren atzean, eta *-ian* kontsonante ondoan:

<sup>18</sup> Pentsa daiteke *eriotze* dela hitza eta ondoko *gaitzerik* erreperkusioz-edo sortu dela, baina behe-raxeago *eriotzas* dago.

*Ezabumentuen* ‘ezagumenduan’, *garizmen* ‘garizuman’, *grazien*, *ikeren* ‘ikaran’, *bere lan edo trabajuen*, *lurrian*, *moduen*, *mortalian*, *orduen*...

b) Plurala: *-etan*

*Guzietan*, *onetan* (ustez).

c) Mugagabea: *-tan*

*Bandotan*.

d) Izenordain, izenondo eta beste: *Onetan* - *ontan*, *artan*, *auetan* (itxuraz).

#### 2.2.1.5.2. Bizidunekikoa

a) Izenordain, izenondo eta beste: *Bere baiten*, *nere baitten*.

#### 2.2.1.6. Adlatiboa

##### 2.2.1.6.1. Bizigabeekikoa

a) Singularra: *-ra* (*-re* goiko bokal baten ondoan)

*Aborrezimenture*, *bekature*, *bistera*, *landara* (*artas landara*), *penitentzierra*.

b) Plurala: *-etara*

*Sanduetara*.

##### 2.2.1.6.2. Bizidunekikoa

a) Singularra: *-arengana*

*Jangoikoarengana*.

b) Izenordain, izenondo eta beste: *Neregana*.

#### 2.2.1.7. Ablatiboa

##### 2.2.1.7.1. Bizigabeekikoa

a) Singularra: *-ti* (bokal ondoan), *-eti* (kontsonante ondoan)

*Estimezioti*, *korputzeti*.

b) Plurala: *-etati*, *-tati*

*Fatigetati*, *guzietati*, *okasiotati*.

##### 2.2.1.7.2. Bizidunekikoa

a) Singularra: *-arengandi*

*Jangoikoarengandi*.

b) Mugagabea: *-engandi*

*Elkarrengandi*.

c) Izenordain, izenondo eta beste: *Berengandi*.

#### 2.2.1.8. Leku genitiboa

a) Singularra: *-ko* (bokal ondoan), *-eko* (kontsonante ondoan)

*Elizeko*, *garizmeko*, *legeko*, *mortaleko*, *tribunaleko*...

b) Mugagabea: *-ko* (leku izenekin)

*Korintioko*.

#### 2.2.1.9. Genitiboa

a) Singularra: *-aren* (> *-eren*, *i* ondoan), *-an* (> *-en*, *i* eta *u* ondoan)

*Agilidadiaren*, *animen* ‘arimaren’, *aragieren*, *bizieren*, *demonioaren*, *entendimentuen* ‘adimenaren’ (ustez), *gaistuaren*, *gizonan*, *inpasibili-*

*dadiaren, jangoikoaren, justuan, kriadoriaren, magestadiaren, milagroan, miserikordien* ‘miserikordiaren’, *mortalan, nekiaren, paternosterran, profetan, sugestioan, tristiaren...*

b) Plurala: *-en*

*Animen, au[n]dien, bekatuen, etsaien, guzien, sanduen.*

c) Mugagabea: *-ren* (bokal ondoan)

*Espazioren, jangoikoren.*

Kasu batean *-eren* dago: *Ezekieleren* ‘Ezekielen’

d) Izenordain, izenondo eta beste: *Nere, onen, arren* ‘haren’, *bere* ‘bere’, ‘beren’ eta ‘haren’, *gure, geren* ‘geure’, *zuen, aien, beren.*

#### 2.2.1.10. Soziatiboa

a) Singularra: *-aki*

*Deseioaki, egieskuaki* ‘egiazkoarekin’, *sanduenaki.*

b) Plurala: *-eki*

*Edertasuneki, guzieki.*

c) Mugagabea: *-reki* (bokal ondoan)

*Iagoreki, jangoikoreki* (bitan gutxienez; normalki *jangoikoareki*).

d) Izenordain, izenondo eta beste: *Aieki.*

#### 2.2.1.11. Destinatiboa

a) Plurala: *-endako* (singularra ere izan daiteke)

*Arrepentituendako, guziendako.*

b) Izenordain, izenondo eta beste: *Batendako* ‘baterako’ (*salbaziorako*-ren aldamenean ageri da).

#### 2.2.1.12. Adlatiboa edo inesiboa oinarritutako destinatiboa

a) Singularra: *-ko* (behin), *-rako* (bokal ondoan, *-reko* *u*-ren atzean), *-erako* (kontsonante ondoan)

*Erremedioko* ‘erremediorako’, *gaitzerako, salbaziorako, serbitzureko.*

b) Izenordain, izenondo eta beste. Ikus *batendako*, aitzineko atalñoan.

#### 2.2.1.13. Instrumentala

a) Singularra: *-as, -az* (*-ez* goiko bokal baten ondoan)

*Enfermedadias, eriotzas, estaduez, eternuas, gloriosuas, salbazioas, seguridadias...*

b) Plurala: *-etas*

*Guzietas.*

c) Mugagabea: *-s* (cf. *egiesko* ‘egiazkoa’, *graziesko* ‘graziazkoa’, *miserikordiesko*) eta *-(e)z*

*Bendizios, berris, bolundates, egiñez, faltas, grazies, konparazios, kulpes, medios - medios, podorios...*

d) Izenordain, izenondo eta beste: *Ortas, artas* (*landara*).

#### 2.2.1.14. Motibatiboa

Izenordain, izenondo eta beste: *Onengati.*

### 2.2.2. Aditzaren morfologia

Lerro berean ageri diren *eraiteko* ‘ereiteko’ eta *erakizituen* ‘erein zituen’ adizkien bimorfismoa azaltzeko hemen ere partizipioaren eta aditz-izenaren

(bai eta ere, behin edo beste, bestelako izenen baten) artean egoten den aldea dagoela pentsatu beharko dugu, hots, Goizuetako egungo *ebaki* / *ebattera*, *ebattetik*, Artatzako testuko *eregi* ‘erein’ / *ereitia* ‘ereitea’, Lizarragaren *eraiki* ‘erein’ / *eraizioa* ‘ereintza’ edo Lazarragaren *edegi* ‘edeki, kendu’ / *edetera* ‘edekitzera, kentzera’ (ikus Salaberri, 2004: 546). Bernat Etxeparek bitan darabilen *edetazu* ‘ken iezadazu’ adizkian ere ez da bestetan (*eduki*, *ireki*, *jaiki*-n erraterako) azaltzen den *-ki* aditz atzizkia ageri.

### 2.2.2.1. Indikatiboa

#### 2.2.2.1.1. Orainaldia

##### 2.2.2.1.1.1. Iragankorrek

*Deitzen dute*, *partizipetzendute* dugu, ez Elkanokoaren lanetan, Iruñerrian eta Garesen (Ondarra, 1982: 161) dagoen *ikusteunte*, *ikustonte*, *ikustaunte*-ren modukorik. Oltzan, dena dela, eta Bonaparteren datuen arabera, *ikusten dute* egiten zuten, hots, predikuetan dugun aldaera bera erabiltzen zen.

##### 2.2.2.1.1.1.1. Trinkoak

a) Eduki: *Dauke*, *daukezte* ‘daukazue’<sup>19</sup>.

##### 2.2.2.1.1.1.2. Laguntzailedunak

a) Nor-nork: *Tu – ttu* ‘ditu’, *tuzte* ‘dituzue’, *tute – ttute* (*egitten ttute*) ‘dituzte’.

b) Nor-nori-nork: *Dizu* (*komitzen dizu* ‘gonbidatzen zaitu’, irudiz), *dio* (*komitzen dio* ‘gonbidatzen du’, ustez), *diogu*, *diote* ‘diote’ eta ‘die’, *digu* ‘digu’ / *tigu* ‘dizkigu’, *digute*.

##### 2.2.2.1.1.2. Iragangaitzak

##### 2.2.2.1.1.2.1. Trinkoak

a) Izan: *Naiz*, *da* (*de*, *u*-ren ondoan), *dre*.

b) Egon: *Gaude*, *daude*.

##### 2.2.2.1.1.2.2. Laguntzailedunak

#### 2.2.2.1.2. Iraganaldia

##### 2.2.2.1.2.1. Iragankorrek

##### 2.2.2.1.2.1.1. Laguntzailedunak

a) Nor-nork: *Zuen*, *zitzen* - *zittuen*, *nienduen* ‘ninduen’ (behin; hutsa?).

b) Nor-nori nork: *Zion* ‘zion’ / *zition* ‘zizkion’, *zioten* ‘zien’, ‘zioten’.

##### 2.2.2.1.2.2. Iragangaitzak

##### 2.2.2.1.2.2.1. Trinkoak

a) Izan: *Zen*, *zren* – *ziren*.

b) Egon: *Zegon*.

##### 2.2.2.1.2.2.2. Laguntzailedunak

a) Nor: *Zen*.

b) Nor-nori: *Zakion* ‘zitzaion’.

<sup>19</sup> Sagrario Aleman euskaltzainak dioskunez, Etxalekun ere *daukezte* ibiltzen dute.

## 2.2.2.1.3. Geroaldia

Bokalez bukatutako aditzetan *-ko* ibiltzen da: *Atzenduko, deseietuko, dis-tingituko, ikusiko, paratuko, topatuko...*, eta sudurkariz bukatutakoetan *-en*: *Izenen*.

## 2.2.2.2 Subjuntiboa

Ez du aditzoina eskatzen normalki, baina kasuren batean forma horrekin azaltzen da, aditza *-tu*-rekin bukatzen denean (*ezabu zezan*; baina *siñestatu zezaten*)<sup>20</sup>.

## 2.2.2.2.1. Orainaldia

## 2.2.2.2.1.1. Iragankorrek

a) Nor-nork: *Barkatu detxan* ‘barka ditzan’, *izen zaten* ‘izan dezaten’, *ez gatzala utzi tentazioan egoztera* ‘ez gaitzala utz tentazioan erortzen’, *sostenitu gatzan*.

## 2.2.2.2.1.2. Iragangaitzak

a) Nor: *Sartudaien*.

## 2.2.2.2.2. Iraganaldia

## 2.2.2.2.2.1. Iragankorrek

a) Nor-nork: *Ezabu zezan, kulpe zala* ‘kulpa dezala’, ‘errua egotz diezaio-la’, *siñestatu zezaten*.

## 2.2.2.3. Baldintza alegiazkoa

## 2.2.2.3.1. Trinkoak

a) Eduki: *Bagiñauke* ‘bageueka’.

## 2.2.2.3.2. Laguntzaileak

2.2.2.3.2.1. Iragankorrek: *Biarluke* ‘behar luke’, *perseberatzen balukete* ‘perseberatuko balute, horretan segituko balute’.

2.2.2.3.2.2. Iragangaitzak: *Elitzeke izenen* ‘ez litzateke izanen’.

## 2.2.2.4. Ahalera

Ez du aditzoina eskatzen.

## 2.2.2.4.1. Orainaldia

a) Nor: *Imajinetu eztaiteken edertasuneki, izendaiteke*.

b) Nor-nork: *E(t)zake dudetu / gizonak imajinetu e(t)zaketen prezioa / uketu e(t)zakena* ‘uka ez dezakeena’. Bestalde, *eze ezta lurrian bere pordoriaki [ez] dazkenik* (edo *daskenik*) esaldian *dezake*-tik ateratako *dazke* dugula dirudi, baina ez da inola segurua.

## 2.2.2.5. Agintera

Aditzoina agertzen da usaian: *Pensa ta begire*.

## 2.2.2.5.1. Iragankorrek

a) Nor-nork: *Ikus zazte* ‘ikus ezazue’.

<sup>20</sup> Aintzat hartu behar da aski aditz berezia dela *ezagutu* eta Elkanokoak *ezaundu* (< *ezagun* + *-tu*) ibiltzen duela.



### 2.2.3. Atzizki eta bukaerak

- Ari: Bekatari – pekatari.
- Asun, -tasun: Gogortsun, illuntasun, ondasun.
- Garri: Lastimagarri, nazkagarri.
- Ka: Tropolka.
- Ki: Obeki, ongi, prinzipalki.
- Mente: Seriamente, solamente.
- Mentu: Aborrezimentu, entendimentu, ezabumentu, mandamentu, sentimentu, sakramentu.
- On: Dragon, sermon.
- Sio: Okasio, propensio.
- Tade: Boluntade.
- Zale ‘-tzaile’: Adizale.
- Zio: Atentzio, barkazio, debozio, estimezio, inklinazio, korronpizio, obligazio, oraizio.
- Zoe > -zue: Arrazue ‘arrazoia’. Mikel Olanok (2002: 173) dio Leitzako oraingo arrazobe hitza *arrazoe* bide zela XVIII. mendean. Ikus, orobat, autore honek 2005eko lanean biltzen duen *arrazobe* sarrera.

## 2.3. Joskera

### 2.3.1. Bakunak

2.3.1.1. Harridurazkoak: *Zein zierto den.*

### 2.3.2. Elkartuak

#### 2.3.2.1. Juntatuak

- 2.3.2.1.1. Emendioa: *Eta, ta.*
- 2.3.2.1.2. Hautakaritza: *Edo.*
- 2.3.2.1.3. Aurkaritza: *Beño.*

#### 2.3.2.2. Mendekoak

2.3.2.2.1. Perpau osagarriak: *Bai, preziso ta nezesario da pekatariak sartu daien bere baitten eta kulpe zala bere burue | ..., da nezesario artas landara Jangoikoren esku poderosuac sostenitu gatxan utzi gabe itzultzera berris bekaturre | egie da ezteela denbora ta egunik | egie da izenen dela lurrian ortzirik | erakusten digunian zein aundie ta indispensablea den penitentzietako sakramentue konsigitzeko gizonak been salbazio eternuas esaten tigu itze auek | esaten digu eze nola izerbat distingitzenden beste ize bateti bere argitasunian, ala korputz gloriosuak distingituko drela elkarrengandi berengandi | ezta aski Jangoikoaren piedadiak eta miserikordiek barkatu detxan gure bekatuek bizitzeko seguro gure salbazioko bidian | Oh! Anime kristauek, pentsa ta begire ongi zenbateko honra ta glorie infundituko dioten Jangoikoak zuen korputzeoi | ta arrazue da izen zaten erremedioak artzeko denbora ta espazioren bat.*

#### 2.3.2.2.2. Alderaketa

- (Beño)...-ago(ko): *Ab!, eta zer gauze izen daiteke au beño nezesario ta prezisugo? | au zen JK. gure redemptoria mundure etorri zen beño lenago | beño resuzite[tu]ko da inpasible ta inmortal, sekule iagoko eriotzerik, gai-*

*tzerik eta penarik izan biar eztuena / ezabutzeko bekatariak bere estadu tristiaren ezabumentuen, ezabutzeko obeki bekatuen engañue ta bajeza / ta inploratzeko auxilio iagoreki Jangoikoaren miseriak / zergatik ezta destiñetu biar denboraren bat gauze guziek beño iago inportatzen duen batendako, nola den animen salbaziorako? / zergatik garizmen dre frekuentiago kristauen oraizioak eta penitentziek / zergatik, zer gauze tristiagorik izen daiteke nola egotia kristauak pribeturik bere Jangoikoaren grazie ta estimezioti?<sup>21</sup>*

- *Aiñ... nola: Aiñ pronto nola lanzatu zuen / iaketa dren aiñ frekuentia[k] anime tristiaren gaitzek eta peligrak, nola dren bekatuek justu.*
- *Nola... ala: Esaten digu eze nola izerbat distingitzen den beste ize bateti bere argitasunian, ala korputz gloriosuak distingituko drela.*
- *Nola...-(e)n: Zergatik ezta destiñetu biar denboraren bat gauze guziek beño iago inportatzen duen batendako, nola den animen salbaziorako?*
- *(-rik)...-ena, -rena (behin): Deitzen dute garizme titulo ta izen sanduenaki / empeñorik obrena / garizme sanduko denbora dela apropositorena ezabutzeko bekatariak bere estadu tristiaren ezabumentuen, ezabutzeko obeki bekatuen engañue ta bajeza.*

#### 2.3.2.2.3. Erlatibakuntza

- a) *-(e)n-en bidezkoak: Adiazteko guri Sn. Pablo apostoluak korputz difuntuen resurrezioa elkarrengandi izenen duen diferentzie [...] / atzenduko naiz egin zituen ofensa ta bekatu guzietas / bekatu egiñez egiesko dolore ta sentimentus damaturik neregana itzultzen den instete bereti [...] / Bienabentu[re]tuen korputzek izenen tuten lau doie gloriosua auek / demoniok poseiturik zegon mutuet, despedituko tuten argitasun gloriosuaren medios / egi zierto ta klaroat, iñork ere uketu e(t)zakena / gizonak imajinetu e(t)zaketen prezioa / jendiak ikeren tuen figure tristiaki / gaurko ebanjelioa referitzen digune / gure miseriek edo animen gaitzek egiten dioten lastime eskatzen badiogu erremedietzen egiesko deseioaki / oraiñ eztena baiziken gaitze / partizipetzen duten sufragio guzietati / poseitzen tuen animek / resuzitetuko da imajinetu eztaiteken edertasunareki / S<sup>o</sup> Pablo apostoluak esaten tigon lau doie gloriosua ederra aieki...*
- b) *Zein-en bidezkoak: Egie da eztela ordurik zeñetan pekatariak ezttuen topatuko zabaldurik miseriak tribunaleko atariak / enfermedadiaren deposituet, zeñetan arkitzendren miserie ta flakeza guziek / estadu tristia, zeñetan arkitzen den bekatu mortaleko estaden dagon bitertian / ia gaude denbora sandue artan zeñetan egiesko kristauak egitten ttuten bere alegiñek, prezisuak eta mezesarioak konsegitzeko beren bekatuen barkazioa / ia gaude denbora sandu artan zeñetas San Pablo apostoluak esaten zioten Korintioko kristauei itz auek [...].*
- c) *Aurreko bien arteko gurutzaketa: Egie da eztela denbora ta egunik zeñetan Jangoikoaren miseriak justuan oraizioak eta erreguek aitzen ezttuenik.*
- d) *-ikeko: Gracias eta bendizios beterikeko egun auetan. Muzkiko Morentindarren testuetan (Lekuona, 1973: 373, 3777) egendaturikekoa, errezibiturikeko dago. Ergoienerriko toponimian ere ageri da erlatibo mota hau.*

<sup>21</sup> Bistan da hemen nahasketa izan dela *aiñ...nola* eta *beño...-ago(ko)* ereduaren artean.

## 2.3.2.2.4. Denborazkoak

## 2.3.2.2.4.1. Jokatuak

- (e)n *aldioro*: *Zergatik bekatu mortalian konsentitzen duen aldioro, konsentitzen du bere kulpes ta bere bolundates.*
- (e)n *bitertian*: *Estadu tristia, zeñetan arkitzen den bekatu mortaleko estaden dagon bitertian.*
- (e)n *nian*: *Erakusten digunian zein aundie ta indispensablea den penitentzieko sakramentue konsigitzeko gizonak been salbazio eternuas esaten tigu itze auek | esaten dugunian ezgatzala utzi tentazioan egoztera.*

## 2.3.2.2.4.2. Jokatugabeak

- *Ondorian*: *Erakutsi ondorian | erresuzitetu ondorian | prediketu ondorian.*

## 2.3.2.2.5. Moduzkoak

- (-en) *bezela*: *Aseguretzen digun bezela | resucitetukoda entero purifiketurik, espiritu gloriosuat bezela | S<sup>n</sup> Krisostomok deitzen duen bezela | S<sup>n</sup> Juan ebangelistek esaten digun bezela.*
- *ela*: *Elizeko doktoriak deitzen dute garizme titulo ta izen sanduenaki, deitzen dutela batzuek tempus militie christiane. | esperatzen dutela Jangoikoaren grazies landara zuen atentzio piadosua.*
- *en konforme* ‘-en bezala’, ‘-enaren arabera’: *S<sup>n</sup> Lukesek [...] ta S<sup>n</sup> Juan Krisostomo konfirmetzen diguten konforme.*

## 2.3.2.2.6. Kontzesiboak

- *Bienke* ‘nahiz eta’: *Bienke demonioak itxutzen du.*
- *iken ere*: *Beño au ala izanekin (sic) ere, e(t)zake dudetu iñork [...].*

## 2.3.2.2.7. Baldintzazkoak

- *Ba-*: *Bagiñauke Jangoikoarengandi seguridade edo itze publikuat geren graziesko estaduez [...] | itzultzen bada Jangoikoarengana | gure miseriek edo animen gaitzek egiten dioten lastime eskatzen badiogu erremedietzen egiesko deseioaki | ongi begiretzen bada.*
- *Baldin... ba-*: *Baldin bizi llaburre guardatzen batuzte | baldin kristauek perseberatzen balukete bautismo sanduen errezibitu zuten grazie garbi ta sandu artan, orduen, kaso ontan elitzeke izenen nezesario penitentzieko sakramentu au.*

## 2.3.2.2.8. Kausazkoak

- *Iaketa... -en*: *Bada iaketa dren aiñ frekuentia[k] anime tristiaren gaitzek eta peligroak.*
- *Zergatik, zergatiken... (-en)*: *E(t)zion gizonari paratu termio edo denbora xakiñik, zergatik denbora guzietan dauke kristauek denbora ta eskaie akuditzeko Jangoikoarengana | ia sea zergatik garizmen dre frekuentiako kristauen oraizioak eta penitentziek, ia sea zergatik garizmen frankiatzen dren iago, esateko moduen [...], ia sea enfin zergatik garizmeko denbora dena inspiretzen duen ta infunditzen duen debozioa | zergatik bekatu mortalian konsentitzen duen aldioro, konsentitzen du bere kulpes ta bere bolundates | zergatik garizmeko egun bakotxak balio duen gizonak imajinetu e(t)zaketen prezioa | zergatiken izenen da inpasible ta inmortal.*

## 2.3.2.2.9. Helburuzkoak

- a) *Jokatuak*: *Bada, gizon bekatarie sartu daien bere baiten eta ezabu zezan bere estadu tristia | ... egin zituen milagroa edo beste, konfirmetzeko bere doktrine, sanduen ta milagroan bistera siñestatu zezaten [...].*

- b) Jokatugabeak: *Adiazteko guri Sn. Pablo apostoluak korputz difuntuen resurrezioa elkarrengandi izenen duen diferentzie [...] | bere alegiñek, prezisuak eta mezesarioak konsegitzeko beren bekatuen barkazioa |... egin zituen milagroat edo beste, konfirmatzeko bere doktrine, sanduen ta milagroan bistera siñestatu zezaten [...] | ezabutzeko bekatariak bere estadu tristiaren ezabumentuen, ezabutzeko obeki bekatuen engañue ta bajeza | ezta aski Jangoikoaren piedadiak eta miserikordiek barkatu detxan gure bekatuek bizitzeko seguro gure salbazioko bidian...*

## 2.4. Hiztegia

Atal honetan testua dialektologiaren aldetik ongienik nabarmentzen duten ezaugarriak sartzen saiatu gara.

- *Aitu* ‘aditu’, baina *adizale*.
- *Anime*.
- *Ario* ‘era’ edo: *Ario ontara* ‘era honetara’, ‘honen arabera’. Cf. Etxalekuko *ariora* ‘arauka’, ‘proportzioan’ eta elkanoarraren *bizimoduaren ariora* ‘bizimoduaren arabera’ (ikus Salaberri, 2007: 601), *ario gortara* ‘modu horretara’ (1994: 18).
- *Arkitu*, *arkittu* (nor, nor-nork). Egungo hizkeran ez bide dago, Erdoziak behintzat ez du jasotzen. Ikus *topatu*. Elizaldek *aurkitu* du, Muzkiko testuetan *arkitu*, *topatu* eta *opatu* daude, Utergako katiximan *arkitu*, Iberoko gurutzebidean *arkitu* eta *topatu*. Elkanokoak *aurkitu* (nor, nor-nork) eta *opatu* (nork) darabiltza.
- *Arrazue* ‘arrazioa’. Utergako katiximaren itzultzaileak, Elizaldek eta Lizarragak *arrazio* ibiltzen dute.
- *Aski*.
- *Atari* ‘atea’.
- *Atzendu* ‘ahantzi’ (nor). Instrumentala eskatzen du: *Atzenduko naiz egin zituen ofensa ta bekatu guzietas*. Utergako XVIII. mendeko katiximan ere *atzendu* dago, eta forma horixe ageri da Bonaparteren materialetan, hots, Elkanon, Garesen, Oltzan eta Goñin. Sakanan, mendebaldera, *aztu* biltzen du Etxaidek (1989: 293), eta forma hori berori jasotzen du Erdoziak (2004: 55).
- *Atzenik* ‘azkenik’.
- *Aundi*.
- *Aurrian* ‘aurrean’.
- *Baiziken* ‘baizik’.
- *Bakotx*. Lizarragak ere aldaera hau ibiltzen du, eta ez bakarrik ‘bakoitza’ adierarekin; ikus Salaberri (2007: 613).
- *Barkazio*.
- *Baru*.
- *Begiretu*.
- *Bekadari* eta *pekatari*.
- *Bekatu* (mortal).
- *Beño* ‘baina’, ‘baino’. Sakana erdialdean ere, egun, *beño* dago (Erdozia, 2001: 387).
- *Bereala*. Aldaera hau, sinkopaz ihardukitzean ikusi bezala, ez dago ez Iruñerrian, ez Itzarbeibarren, ez Goñin eta ez Elizalderen lanetan ere,

- baina bai Lizarragarenetan, hemen *berla*-rekin batean. Sakanan egun *bele(i)xe* dago eta Urdiainen *belaxe* (Erdozia, 2004: 69).
- *Berris*. Bonaparteren materialetan ere *-s* dun forma dago leku guztietan, eta gu hobikaria duen aldaera entzunak gara Basaburuan.
  - *Beste*.
  - *Bezela*. Bonapartek *bezala* jasotzen du Elkanon, harridura markarekin halarik ere (Lizarragak *bekala* du), Garesen *bejala* zegoen, Oltza eta Goñin *bezela*.
  - *Bienke* ‘nahiz eta’. Erdoziak Bakaikun bildu du (2002: 296), ‘desde luego!’ harridurazko adierarekin.
  - *Bolundate* (normalki), *boluntade* (behin) ‘borondatea’.
  - *Bota* (nork). Ikus *egotzi*.
  - *Deseio*, *deseietu*.
  - *Desgaie* (*ezta sekule desgaierik*) ‘desgaraia’ (ustez).
  - *Doie* ‘dohaia’.
  - *Edo*. Elkanon *edo* zegoen, baina Garesen, Oltzan eta Goñin *ero*. Elizaldeek eta Lizarragak *edo* dute beren idazkietan, eta forma hori berori azaltzen da Utergako katiximan eta Muzkiko testuetan.
  - *Egi* ‘egia’.
  - *Egin*.
  - *Egotzi* ‘bota’. Baina *bota* ‘erori’ ere izan daitekeenez gero (ikus Erdozia, 2004: 82), *egotzi* azaltzen da behin ‘erori’ adierarekin (hutsa ez bada behintzat): *Ezgatxala utzi tentazioan egoztera*.
  - *Eraki* ‘eraiki, erain’, *eraiteko* ‘ereiteko’.
  - *Erakutsi*.
  - *Eriotz*. Utergako katiximan, Muzkiko testuetan eta Iberoko gurutzebidean *eriotze* dago.
  - *Ertean* ‘artean’.
  - *Ertxi* ‘itxi’.
  - *Esan*.
  - *Eskaie*. Sakanan *eskei* (*eskeie*, *eskeia*) ‘aukera’ ibiltzen da (Erdozia, 2004: 108, 2007: 21) eta, Sagrario Aleman euskaltzainak dioskunez, Etxalekun ere *eskaie* dago, adiera bertsuarekin (‘aukera ona’). Elkanoko Lizarragak *eskaida* ibiltzen du adiera horrekin: «*Prinzipalki bizitza sendoki ona, ta ez uztea gaintzera pasioneren bat, ezi gaintzen bada, ematen zaio etsaiai kindar ta eskaida gaizki egiteko*» (2004: 197).
  - *Ete* ‘ote’ (lehen bokala ez da garbi-garbia; cf. Erdoziak [2001: 68] biltzen duen *emen* ‘omen’).
  - *Etorri*.
  - *Ezabutu* ‘ezagutu’.
  - *Gabe*. Utergako katiximan eta Elizalderen lanean *bage* dago, Iberoko gurutzebidean eta Lizarragaren izkribuetan *gabe*. Morentindarren testuetan (Lekuona, 1973) bi aldaerak daude, baina *bage* gehiagotan ageri da.
  - *Gaitz*.
  - *Garizme* ‘garizuma’.
  - *Gaur* ‘egun’. Elizaldek *egu* darabil eta Lizarragak *egun*. *Gaur*, irudi dueenez, ‘gaur gauean’ da bigarren idazlearen lanetan.
  - *Guardatu* ‘gorde’. Lizarraga Elkanokoak ere *guardatu* ibili ohi du.
  - *Guzi*.

- *Ikusi*.
- *Instete* 'unetxoá'.
- *Iñor ez*.
- *Izer* 'izarra'.
- *Jaun*.
- *Jende*.
- *Konforme*. Erlatiboa galdegiten duen postposizioa da hau: *Konfirmetzen diguten conforme*.
- *Konsegitzeko* (*konsigitzeko*, behin).
- *Korronpizio*. Elkanoko Lizarragak ere badarabil hitz hau: «*Zer mostratzen da ontan? Sartzekos an bear dela guardatu libre bizioen korronpiziotik*» (1979: 75).
- *Landara*: *Artas landara, grazies landara*. Bonaparteren materialetan ere *landara* 'outré', 'además' biltzen da, eta bai Elizaldek bai Lizarragak ere *landara* ibiltzen dute, instrumentalarekin.
- *Makurre*.
- *Materie* 'zornea'.
- *Mintzetu* (nor).
- *Mutu*.
- *Mututu*.
- *Nazkagarri*.
- *Obrena* 'hoberena'. Beriainek *oberena* du gehienetan, baina behin *obrena* darabil. Utergako katiximan *obrena* dago eta Lizarragak *obrena* eta *obena* ibiltzen ditu.
- *Ondorian* 'ondoren'.
- *Ongi*.
- *Orai* eta *oraiñ*. Bonaparteren materialetan *orai* eta *orei* jasotzen dira, bigarrena Goñin.
- *Oraizio*. Ikus gorago erranikakoa.
- *Ortzi*. Ele hau biziki hedaturik egon da Iruñerrian eta inguruetan. Amenduxek, Beriainek, Elizaldek eta Lizarragak ibiltzen dute. Imozko Etxalekun 'ezkutatu' da.
- *Paratu* 'ipini'.
- *Peleietzeko* 'borrokatzeko'.
- *Podore* 'boterea', baina *poderosua*. Bonaparteren materialetan *podore* dago Elkanon, *podere* Gares, Oltza eta Goñin. Elizaldek *podore* darabil, baina *poderosoa*; Muzkiko testuetan izenondo hori besterik ez dago. Iberoko gurutzebidean *podore* ageri da.
- *Sandu*. Aldaera hau arrunt zabaldu egon da Iruñerrian eta honen inguruan, baita hiriburuan berean ere, *Sanduzelai* toponimoak frogatzen duen bezala. Forma hori bera dago Beriainen idazkietan, Iruñean 1609an saritu olerkietan, Elizalderen dotrian, Muzkiko testuetan, Lizarragaren lan ugarietan, Makirriaingo 1828ko katiximan eta bestetan.
- *Serbitzetu* eta *serbitu*.
- *Siñestatu*. Utergako katiximan *siñestatu* dago, Elizalderen lanean eta Lizarragarenetan *sinestatu*, bigarren honen kasuan *sinetsi*-rekin batean.
- *Solamente*. Elizaldek eta Lizarragak ere erabiltzen dute mailegu hau.
- *Sortu* 'gortu'.
- *Termio* 'término' 'denbora muga'.

- *Topatu* (nork). *Arkitu*, *arkittu* ere bada testuetan. Egun *topatu*, *topo in* Urdiainen baizik ez da ibiltzen; Sakana erdialdean (Erdozia, 2004: 77, 232) *opatu* (nork) eta *billetu* daude. Etxaidek (1989: 305) *opatu* bildu zuen Murginduetan, *billetu* Lakuntzan eta Unanun, *bilatu* Bakaikun.
- *Utzi*. Aditz honek adlatiboa eskatzen du, nominalizazioetan: *Utzi gabe itzultzera berris bekature / ezgatxala utzi tentazioan egoztera*. Elizalde eta Lizarragaren lanetan ere adlatiboa galdegiten du. Lexemaren forma dela eta, Lakuntzan eta Bakaikun *utzi* bildu zuen Etxaidek (1989: 286), baina *autzi* Unanun.

### 3. HURBILEKO BESTE HIZKEREKIKO ALDERAKETA

Hemen aterako ditugun ondorioak behin-behinekotzat hartu beharrak dira, Matxinandiarena apezaren testu guztiak zehatz-mehatz aztertzen ez dituguino ez baitugu jakinen gure autoreak zerabilen euskara xuxen nolakoa zen. Beraz, oraingo lan hau gero etorriko direnen esperoan gelditzen da, aitzinago jinen diren ekarpenen begira. Nolanahi ere, irakurleak ez du pentsatu behar azken ondorioak argi-argiak eta behin betikoak izanen direla, zeren, Goñerriko hizkera aztertzean Caminok idatziak (1999: 7) gure eginez, ondo-ko hau erran baitezakegu:

... ia inoiz ez dakigu xuxen nongoa den idazlea, ez non idatzi zuen ezta noiz ere, soilik Goñerrian agertu testuak direla, ziur aski bertan predikatuak. Ez dakigu testuko ezaugarri guztiak hizkera bakar bati ote dagozkion, dimorfismoak eragin literarioari ala beste hizkeren nahasketari dagozkion...

Oraingoz erran dezakegu testuok badituztela Iruñerrira eta Goñerri-Gesalatzetara hurbiltzen dituzten ezaugarri batzuk, hots, Iruñeko zendeetako euskarara eta, bereziki, Caminok (2003: 150-153) mendebaldeko hego-nafarrerara deitu duen hizkerara hurrantzen dutenak. Hauek, hein batean, egun Aranatzan erabiltzen diren formak dira.

Deklinabidearen karietara, hasteko eta bat nabarmendu nahi dugu alderdi honetan, Gares, Oltzan eta Goñin bezala, izenondo erakusleek ez dutela Elkanoko eta ekialderagoko hizkerak agertu ohi duten *g-* ezaguna. Sakanako erdialdeko egungo hizkerak ere ez du holakorik, jakina.

Kasuez den bezainbatean, partitiboan dardarkaria beti atxikitzen da bokal ondoan testuetan; Sakana erdialdean, berriz, galdu egiten da (Erdozia, 2001: 206). Halarik ere, eskualde honetan zenbait aldiz *-iken* da partitiboa, Matxinandiarenaren izkribuetan bezala. Lizarragaren lanetan normalena *-(r)ik* da, baina behin edo beste *-rikan* ere bada (*kendurikan*, konparaziorako). Muzkiko XVIII. mendeetan *-riken* dugu pare bat aldiz partitiboan (*doloreriken*, *gauzeriken*), baina normalena *-rik* da (*altxaturik*, *denborarik*, *gauzarik*, *kasorik*...); Utergako mende bereko katiximan, berriz, *-(r)ik* dago (*bizikiderik*, *fñnik*, *osorik*, *prinzipiorik*, *uniturik*, *xarririk* ‘eseririk’), baina, honekin batera, *iñiken* ‘eginik’, *xakiñiken* ‘jakinik’ ere ageri dira. Iberoko gurutzebidean *-(r)ik* dugu beti.

Ergatibo plurala *-ak* da testuetan argi eta garbi; *-ek* goiko bokalek eragindako hersketaren emaitza besterik ez da. Iruñerriko mendebaldean (Ol-

tzan) eta Goñin *-ak* zen hondarkia, eta, berebat, *-ak* da euskara bizirik dagoen Sakana erdialdeko herrietan ere (Erdozia, 2001: 199).

Datiboan gure testuetan batuan bezal-bezala ibiltzen da, nahiz lekukotasun gutxi ditugun pluralerako (*-ei*), eta bakarra singularrerako (*-ari*). Erabileran hau Erdoziak Sakana erdialdean biltzen duenaren antzekoa da, baina ez guztiz berdina, *-ai* eta *-ei* egiten baitute hor (2001: 201), eta hurbil dago Iruñerrikotik. Alderdi honetan *-ai* zegoen Elkanon singularrean (*gizonai*) eta *-ei* pluralean (*gizonet*), *-ari* eta *-eri* Garesen eta Oltzan, *-ai* eta *-eri* Goñin. Iberoko gurutzebidean, dena dela, *-ari* dugu ia beti singularrean (behin *-ai*), *-ei* (> *-ai*, behin) pluralean. Lizarragak *-ai* eta *-ari* ibiltzen ditu singularrean, *-ei* normalki pluralean, *-eri* zenbait aldiz. Elizaldek *-ari* eta *-ei* ohi du, baina pluralean behin edo beste *-eri* ere badarabil; herri bereko Morentindarren testuetan *-ari* dago singularrean eta *-egi* pluralean (*guziegi*, *gauzegei*, *onegi*...), Utergako XVIII. mendeko katiximan bezalatsu (*-ari* singularrean, *-eri* goiko bokalen ondoan, *-egi* pluralean).

Genitiboan *-aren* (eta *-eren*, bokal palatalaren gibelean) osoa dugu, edo, bestela, Oltza eta Goñiko *gizonan*, *illergien* 'ilargiaren' formarekin bat datorren *-an*, *-en* (*i*-ren ondoan) aldaera laburtua: *Animen* 'arimaren', *gizonan* 'gizonaren'... Sakana erdialdeko egoera korapilatsua da (Erdozia, 2001: 203-206), baina gure testuetako datuekin franko ongi ezkon daitekeela dirudi. Iberoko gurutzebidean *-aren* (*-eren i*-ren gibelean) dago singularrean eta *-en* pluralean; behin, ordea, *-en* dugu singularrean *gurutzen eramaten* 'gurutzearen eramaten' sintagman.

Bizigabeekiko ablatiboak ez du testuetan sekula belarrik bukaeran, hots, *-(e)ti* eta *-(e)tati* dugu, eta izenordain-izenondoetan ere *-k*-rik gabeko formak ditugu. Bonaparteren materialetan, aldiz, beti *-k* dago honelakoetan: *Erritik kanpora* (leku guztietan), *loretaik urruti* (Elkano), *loretatik urruti* (Gares, Oltza, Goñi); Elizaldek *-(e)tik* eta *-etatik* darabiltza, eta herri bereko Morentindarren testuetan *-(e)tik*, *-etatik* dira nagusi, baina ugariak dira halaber belarrik gabeko formak, eta behin *-etarik* dugu, *abetarik* 'hauetatik' izenordainean. Iberoko gurutzebidean *-tik*, *-etatik* dago eta Utergako katiximan *-(e)tik*, *-etatik* da ugariena, baina behin edo beste *-eti* dugu singularrean (*bekoskiti* 'bekokitik', *itxeti* 'etxetik', *korputzeti*; cf. *nondi* 'nondik') eta, honekin batera, baita *abetati* 'hauetatik' ere. Sakana erdialdean Hiriberriko testuetako erabileraren antzekoa dakusagu (Erdozia, 2001: 222), eta gauza bera erran daiteke bizidunekiko ablatiboaz (*Jainkoarengandi*, *berengandi* eta *elkarrengandi* ditugu testuetan, eta belarrik gabeko aldaera hori bera egun Sakana erdialdean). Bonaparteren materialean *gizonainganik* dago Elkanon, eta *gizonanganik* Garesen, Oltzan eta Goñin. Iberoko gurutzebidean *santisimoaganik* dago; Muzkiko Elizaldek *-arenganik* (sing.), *-enganik* (pl.) darabiltza, eta gauza bera dugu herri bereko testuetan. Utergako katiximan *-erengandik*, *-erenganik* azaltzen da goiko bokalen ondoan (*Birjinerengandik*, *Birjinerenganik*, *Jaunerengandik*) eta, horien alduan, *gaurenganik* 'geuregandik', *Evarenganik*.

Soziatiboan dela eta, garbi dago testuetan beti sudurkaririk gabeko aldaera dagoela: *-aki*, *-eki* alegia. Sakana erdialdeko egungo hizkeran bimorfismoa omen dago (Erdozia, 2001: 207 eta hur.), hots, bukaeran sudurkaria duten formak nahiz ez dutenak entzun daitezke, hondar hauek adineko hiztunen artean partikulazki. Bonaparteren materialetan sudurkaririk gabeko aldaerak



ditugu, Iberoko gurutzebidean, Utergako katiximan, Lizarragaren eta Elizalderen lanetan bezala. Morentindarren testuetan ere sudurkaririk gabeko alderak daude.

Destinatiboaren lekukotasun gutxi ditugu oraindik, baina agertzen denean beti *-endako* da pluralean eta mugagabea (*batendako*). Bonaparteren materialetan ere beti *-dako*-dun destinatiboak ditugu, eta bai Elizaldek eta bai Lizarragak aldaera hori bera erabiltzen dute; Muzkiko testuetan ere *-dako*-dun aldaerak ditugu.

Instrumentalaz kestione, testuetan bizkarkaria eta apikaria batean kausitzen ditugu, bigarrena franko gehiagotan; egun hondarreko soinu hau besterik ez dago Sakana erdialdean (Erdozia, 2001: 210-212). Bonaparteren datuak ez dira biziri argiak: *-z* omen zegoen leku guztietan, espresuki erraten zaigunez (Elkanon *ixa* artean ageri omen da, Ondarra, 1982: 166), baina lanean azaltzen direnak emeki azterturik ikusten da gauzak ez daudela horren garbi eta mihi puntako hobikaria ere ardua agertzen dela. Lizarragaren lanetan biak kausitzen ditugu, Elizaldek apikaria du, eta Utergako katiximan eta Iberoko gurutzebidean ere soinu horixe dugu. Muzkiko izkribuetan apikaria da nagusi, baina zenbait aldiz, gutxitan egia erran, bizkarkaria ere aurkitzen dugu.

Motibatiboaren lekuko bakarra bildu dugu orain artean, amaieran *-k*-rik ez duena hain zuzen, eta horixe da egun Sakana erdialdean darabiltena, Erdoziaren arabera (2001: 214-215). Bonaparteren materialetan, berriz, *-gatik* duen aldaera azaltzen da, eta Elizalderen eta Lizarragaren lanetan ere belardun hondarkia opatzen dugu, Iberoko gurutzebidean bezala. Muzkiko testuetan ere *-gatik* agertzen da kasu batean (*zergati*) ez beste guztietan, eta anitz dira lekukoak. Utergako katiximan aldaera belardun eta belargabeak aldizkatzten dira.

Aditzari doakionez, testuetako *errezibittukot*, *paratukot*-en tankerakoak ez daude bakarturik, Bonaparteren materialetan *ikuskot* biltzen baita. Beste zenbait ezaugarri, berriz, Arakilez iparralderagoko mintzoetara garamatzate: *daukezte* 'daukazue' eta *tuzte* 'dituzue' formek, kasurako, Imotz eta Basaburuko hizkeretarantz bulkatzen gaituzte. Pluraleko bigarren pertsonan *bauze* 'baduzue' zegoen Elkanon eta Garesen, *bauzie* Oltzan eta *baduze* Goñin; Lizarragak *duzie* erabili ohi du, eta oro har, *-zie* bukaera duten adizkiak kausitzen ditugu, baina frankotan *-ze* ere bada elkanoarraren izkribu jorietan, *dakarraze* 'dakarzue', *dakusaze* 'dakusazue', *dioze* 'diozue', *duze* 'duzue', adibidez.

Testuetan *tagon* (*bitertian*) dugu, eta forma hau da Bonaparteren materialetan, Elizalderen eta Lizarragaren lanetan, eta Utergako katiximan opatzen duguna; egun *dao*, *dau* eta *doo* ibiltzen dira Sakana erdialdean (Erdozia, 2001: 276). Bestalde, *tu* 'ditu' zegoen Elkanon (*tuela*, *tuen*), Garesen (*tula*, *tun*), Oltzan eta Goñin (*tuela*, *tun*) eta testuetan ere aldaera hori bera ageri da, *ttu* palatalizatuarekin batean; ildo beretik, *tute* eta *ttute* 'dituzte' ere badaude. Lizarragak, singularrean, *ditu* (batzuetan), *tu* (gehiagotan) ibiltzen ditu, eta pluralean *dituste*, *tuste*, *tuzte* eta *tute*; gainera, behin edo beste, *dituzte* ere badu. Elizaldek *ditugu* eta *dituste* darabiltza. Sakana erdialdean, Erdoziaren datuen arabera (2001: 261), *ttu* 'ditu' eta *ttubie*, *ttube*, *ttue*, *ttie* 'dituzte'-ren moduko adizkiak daude, denak ere hasmentan soinu palatala dutenak.

Beste ezaugarri batzuk bereziak dira, eta ez dira ageri, dakigula, Iruñerrian (Bonaparteren materialetan eta Elkanokoaren lanetan segurik ez), ez eta aipatu goragoko mintzoetan: *dre* ‘dira’ (*dere* Elkanon, *dire* Garesen eta Muzkiko Elizalderen dotrian, *dere* Oltzan eta Goñin, *dire* Lizarragaren lanetan), *zren* eta *ziren* (Elkanon, Oltzan eta Goñin *zere* Bonaparteren arabera, Garesen *zire*, Elizaldek eta Lizarragak *zire*). Hemen ikusten den bezala, eta puntu garrantzizkoa da hau, testuetan iraganeko adizkiek beti dute sudurkaria bukaeran, behezagoko hizkeretan agitzen zenaz bestera. Beste puntu garrantzizko bat Bonapartek *verbisatio*n deitu zuena ez agerzea da, gorago ikusi bezala, hots, beti *deitzen dute*, *esperatzen dute*, *partizipetzen dute*, *sentitzen dugu* azaltzea, Goñin bezala, baina Elkanon, Garesen eta Oltzan gertatzen denaz bestera.

Aditzaren morfologiaz kestione, notatzekoa da *zakion* forma, hau bat baitator Sakanan bizirik dauden aldaerekin (*zakiyon* orain Etxarri Aranatzen, Zuazo, 1995: 333, eta Bakaikun, Erdozia, 2002: 291), eta bat dator, orobat, hegoalderagoko idazki eta materialetan aurkitzen dugunarekin, hemen, ardua, *-e* agertzeaz landara (ez *-a-*, Hiriberriko izkribuetan bezala) sudurkariarik gabeko forma badago ere: *zekio* (Muzkiko testuak, Lizarraga, baina *konbeni zitzaigu* Elizalderen dotrian). Ekialderago *zakion* edo *zaikion* daude Ibarren arabera Erason eta Muskitzen (Imotz), Beuntza (Atetz) eta Ultzaman, ibar honetan tarteka bakarrik, irudi duenez, baina ez dakigu ongi uler-tu dugun (1995: 424-426).

Dagoena bezain garrantzizkoa da, usu, ez dagoena, eta aitzineko paragrafoetan emandako datuen ildotik, erran behar dugu testuetan iraganaldiko adizkiek ez dutela hondar sudurkaria galtzen, hego-nafarreran gertatzen denaren alderantziz, eta irudi luke hau –ez galtzea– zatekeela Arakilgo hizkeraren ezaugarrietako bat, galtzapenaren zantzuren bat izanagatik ere. Honela dio gai hau ongienik ezagutzen duen Iñaki Camino dialektologariak (1999: 13):

Gutziz bestelakoa da aditzean iraganeko *-n* morfema falta duten hizkeren geografia: oro har, Iruñetik beheetik eta eskuineko hizkeretan dugu ezaugarri hau; eskuinera dauden hizkeretan goiti jotzen du, gainera, ezaugarri honek. Iruñetik ezkerreko goiti joanez gero ez dago *-n* gabeko adizkien arrastorik Anditik iparraldera (baina ikus Arakilgo Satrustegiko *ze* ‘zen’, Yrizar 1992: 591).

Donostiar ikertzaileak dioenez (1999: 25), mapa konplexua du Arakil ekialdeko euskararen egungo egiturak, ez baita garbi ageri Irurtzun-Urritzoletako hizkera Arakilgo gainerakoarekin eta Iruñerrikoarekin batera doan ala Gulibar eta Txulapaingoarekin. Gure testuez den bezainbatez, bertan opatzen dugun *xakin* aldaera *Erizkizundi irukoitza* delakoan biltzen diren *xan*, *xakin* eta *xegi*-rekin bat dator, eta adierazten du testuek segur aski bertako ebakera islatzen dutela, puntu honetan behintzat.

## BIBLIOGRAFIA

- ALEMAN, S., 2008, "Berdetik horira", Etxalekun irakurritako sarrera hitzaldia.
- APALAUZA, A., 2008, "Nafarroako ipar-mendebaldeko euskara: Imotz, Basaburu Nagusia, Larraun eta Araitz-Betelu", *FLV* 107, 63-104.
- ARRAITZA, J., 1988, "Ibero. Vía Crucis en bascuence de comienzos del siglo XIX", *FLV* 51, 143-154.
- CAMINO, I., 1999, "Goñerriko hizkera (I)", *ASJU* 33, 5-78.
- , 2000, "Goñerriko hizkera (II)", *ASJU* 34, 137-196.
- , 2003, *Hego-nafarrera*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- DIEZ DE ULZURRUN, P., 1960, "El catecismo manuscrito de Maquirriain de 1828", *Euskera* 5, 377-403.
- ERDOZIA, J. L., 2001, *Sakana erdialdeko euskara*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- , 2002, "Bakaikuko hizkera", *FLV* 90, 269-306.
- , 2004, *Sakanako Hiztegi Dialektologikoa*, Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia, Iruñea-Bilbo.
- , 2007, *Sakanako hizkeren arabarako idazkera batua*, Sakanako Mankomunitatea, Lakuntza.
- ETXAIDE, A. M., 1989, *El euskera en Navarra: Encuestas lingüísticas (1965-1967)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- IBARRA, O., 1995, *Utzamako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak*, Nafarroako Gobernua.
- KAMINO, P. & SALABERRI, P., 2007, *Luzaidako Euskararen Hiztegia*, Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia, Iruñea.
- LEKUONA, M., 1973, "Textos vascos del siglo XVIII, en Tierra de Estella", *FLV* 15, 369-390.
- LIZARRAGA, J., 1979, *Doctrina Christioarén Cathechima I. Fede Christioarén gáin*, Euskal Klasikoak 1, J. Apezetxeak paratu argitalpena, Euskaltzaindia, Iruñea.
- , 1994, *Jesukristo, Maria eta Santuen Bizitzak*, J. Apezetxeak eta F. Ondarrak paratu argitalpen kritikoa, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- , 2004, *Doctrina Christioaren Cathechima*, J. Apezetxeak prestatutako edizioa, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- OLANO, M., 2002, "Gipuzkerazko sermoi bat Leitzan", *FLV* 89, 169-182.
- , 2005, *Aio, Leitze! Leitzako Euskararen Hiztegia. Etnografia, corpusa, dialektologia*, Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatea, Donostia.
- ONDARRA, F., 1980, "Catecismo del siglo XVIII en vascuence de Uterga (Valdizarbe)", *FLV* 35-36, 173-221.
- , 1982, "Materiales para un estudio comparativo del vascuence de Elcano, Puente la Reina, Olza y Goñi", *FLV* 39, 133-228. Hau Bonaparteren lana da berez, nahiz Bakaikuko euskaltzainak argitarara eman.
- SALABERRI, P., 1994, "Elizalderen Apezendaco doctrina christiana uscaras", *FLV* 65, 7-39.
- , 1996, "Amenduxen olerkiaz. Oharrak", *FLV* 71, 87-97.
- , 2004, "Artatzako euskal testua. Transkripzioa eta hizkuntza azterketa", *FLV* 97, 537-554.
- , 2007, "Altxorraren bila: Lizarraga Elkanokoaren aberastasunak kaustu nahiz", *Jean Haritschelhar-i Omenaldia*, Iker-21, Euskaltzaindia, Bilbo, 597-616.
- SATRUSTEGI, J. M., 2002, "Ukar Itzarbeibarko doktrina (1865)", *FLV* 89, 149-167.
- ZUAZO, K., 1995, "Burundako hizkera", *Euskal dialektologiako kongresua (Donostia, 1991ko irailak 2-6)*, R. Gómez eta J. A. Lakarra arg., *ASJU*-ren gehigarriak 28, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 297-364.

## LABURPENA

*Hiriberri Arakilgo predikuak I. transkripzioa eta azterketa*

Artikulu hau beste lan zabalago baten zati da, etorki Nafarroako Hiriberri Arakilen duen testu sortaren lehen partearen azterketa baizik ez baita oraingo hau. Egileaz mintzo garen aintzinsolasaren ondotik lehen predikuak sartzen ditugu eta, ondoren, testuen hizkuntza azterketa burutzen dugu, predikuon hizkera inguruko ibar eta zendeetakoekin alderatu nahian.

Gako hitzak: Dialektologia, testu zaharrak, Arakil.

## RESUMEN

*Los sermones de Villanueva de Arakil I. Transcripción y análisis*

Este artículo no es sino la primera parte de un trabajo más extenso en el que analizamos los sermones procedentes de la localidad navarra llamada Villanueva de Arakil (Hiriberri Arakil). Tras una breve introducción en la que hablamos del posible autor de los sermones, transcribimos los textos y los analizamos lingüísticamente, tratando de relacionarlos con las hablas de los valles y cendeas circundantes.

Palabras clave: Dialectología, textos viejos, Arakil.

## RÉSUMÉ

*Les sermons de Villanueva de Arakil I. Transcription et analyse*

Cet article n'est que la première partie d'un travail plus vaste où nous analysons les sermons provenant de la commune navarraise appelée Villanueva de Arakil (Hiriberri Arakil). Après une brève introduction où nous parlons de l'auteur éventuel des sermons, nous transcrivons les textes et nous les analysons linguistiquement, en essayant de les rattacher aux langues des vallées et des "cendeas" (communauté de villages ayant une mairie) environnantes.

Mots clef: dialectologie, textes anciens, Arakil.

## ABSTRACT

*The sermons of Villanueva de Arakil I. Transcription and analysis*

This article is the first part of a larger study analysing the sermons from the Navarrese locality of Villanueva de Arakil (Hiriberri Arakil). Following a brief introduction in which we discuss who may have written the sermons, the texts are transcribed and subjected to linguistic analysis in an attempt at relating them with local speech from surrounding valleys and districts.

Key words: dialectology, old texts, Arakil.